

## Kostuen egitura:

### KOSTUAK

KOSTU FINKOAK	KOSTU ALDAKORRAK
Langileak	Zerga (SZ)
Nominen gaineko zergak	Bulegoko materiala
Informatika ekipoa	Pultserak
App argitaratzea	
App garatzea	
Zerbitzu automatizatua	
Marketin-kanpaina	

#### KOSTU FINKOAK:

- Langileak: 4 langile kontratuko ditugu. Kontuan hartuta freelance garatzaileak kontratatuko ditugula eta hauek 28 euro kobratzen dituztela eta app garatzeko 600 ordu inguru behar dituztela 16.800. Nominen gaineko zergak aplikatuta daude 16.800 euro haietan. Langile bakoitzak haien informatika ekipoa eukiko dute. Beharrezkoa izango balu, ordainduko genioke behar duten materiala, baina printzipioz haiek haien materiala eukitzen dute.
- App argitaratzea: Garatzaile gisa alta emateak 22 euro kostatuko digu Play Storen argitaratzeko. Apple Storen ere argitaratu nahi dugu beraz beste 90 euro ordaindu beharko ditugu. Beraz, argitaratzeko 112 euro ordainduko ditugu.

- App garatzea: App-a erabiliko duten erabiltzaileen kopurua eta izango dituen funtzionaltasunak kontuan hartuta, sare sozial baten antzeko app bat da. Aplikazio horiek garatzea 15.000 euroko kostua dute.
- Zerbitzu automatizatua: Bezeroari arreta emateko zerbitzu automatikoa erabiliko dugu. Bezero batek zalantzaren bat, arazoren bat eta abar izanez gero, enpresaren zenbakiari deitu eta zerbitzu horrek arazoa konponduko lioke, hau da, zerbitzuak arintzeko, sinplifikatzeko eta efizientizatzeko balio du, bezeroentzat zein laguntzaileentzat esperientzia hobek sortuz. Honen prezioa 20.000 eurokoa da.
- Marketin kanpaina: Hau erabiliko dugu aplikazioa ezagutarazteko eta erabiltzaileak erakartzeko. Autobusen geralekuan kartelak jartzea bururatu zaigu, jende asko pasatzen den lekua delako, eta erraza delako jendeari gure app-a helaraztea. Hauek izango lirateke hiri bakoitzeko prezioak, hilabete batez gure kartela hiriko autobus geltoki guztietan agertzen delako. Madril-2050 €, Bartzelona-1450 €, Malaga-1450 €, Donostia-1420 €, A coruña-850 €. Guztira 5.800€ kostatuko digu soilik lehenengo hilabetean egingo dugulako gure app ezaguratzeko.
- Guztira: Kostu finko guztiak gehitutak 57.712€ ateratzen digu.

#### KOSTU ALDAKORRAK:

- Sozietateen gaineko zerga (SZ): Egoitza Espainiako lurraldean duten enpresek eta nortasun juridikoa duten gainerako erakundeek lortzen dituzten etekinak zergapetzen dituen zerga. Guk ordainduko dugu gure irabazien %23. Egin dugun zergen kalkulua guztietan aplikatuta dago.
- Bulegoko materiala: 100€ utzi ditugu gasturen bat egin behar badugu. Adibidez orriak imprimatzeko fotokopiaren bat egin behar dugulako edo antzeko gauzak.

- Pulsera batengatik 4€ ordaindu beharko ditugu, kontuan hartuta gutxi gora behera hasieran soilik 25.000 beharko ditugula. 100.000€ ordaindu beharko ditugu
- Guztira: Kostu aldakor guztiak gehituta 100.100€ ateratzen digu.

#### KOSTU TOTALAK:

Kostu finkoak (57.712€) eta kostu aldakorak (100.100€) gehituta 157.812€-ko kostuak izango ditugu.